

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

6240 *Huts-zuzenketa, lege honena: 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrena.*

Hutsak aurkitu dira 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legean. Lege hori 2021eko abenduaren 31ko *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 341. zenbakiaren euskarazko gehigarrian argitaratu zen, eta honen bidez zuzenketa hauek egiten ditugu:

3. orrialdean, hitzaurrean, II. apartatuko azkenengo paragrafoan, laugarren lerrotik zortzigarrenera, hau dio: «...Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioari klase pasiboen araubidearen kudeaketa eskualdatzeko behar diren ekarpenen erregimena, ministerio-sailak berriro egituratzen dituen urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian...» Baina hau esan behar du: «...Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioari Klase Pasiboen Araubidearen kudeaketa eskualdatzeko behar diren ekarpenen erregimena, ministerio-sailak berriro egituratzen dituen urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian...»

64. orrialdean, 37. artikuluan, Bat apartatuko lehenengo, bigarren eta hirugarren lerroetan, hau dio: «Bat. Gerra Zibilaren ondorioz hildakoen senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legearen babesean aitortutako pentsioen zenbatekoa...» Baina hau esan behar du: «Bat. Gerra Zibilean edo Gerra Zibilaren ondorioz hildako espainiarren alargunen eta gainerako senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legean araututako prestazioak kudeatzea...»

64. orrialdean, 37. artikuluan, Hiru apartatuko lehenengo eta bigarren lerroetan, hau dio: «Gerrako mutilatu zibilentzako oinarritzko ordainsariari buruzko martxoaren 29ko 6/1982 Legearen babesean aitortutako pentsioek...». Baina hau esan behar du: «Gerrako mutilatu zibilentzako pentsioen martxoaren 29ko 6/1982 Legearen babesean aitortutako pentsioak...»

64. orrialdean, 37. artikuluan, Lau apartatuko lehenengo, bigarren eta hirugarren lerroetan, hau dio: «Martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuaren babesean gerra-mutilatuen alde aitortutako pentsioak, Aberriaren aldeko gerra-mutilatu zaldunen kidegoan sartu ezin izan zirenen kasuan...» Baina hau esan behar du: «Iragandako gerraren ondorioz mutilazioren bat pairatu eta Aberriaren aldeko gerra-mutilatu zaldunen kidegoan sartu ezin diren espainiarren aldeko pentsioak arautzen dituen martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuan araututako prestazioen kasuan,...»

64. orrialdean, 37. artikuluan, Bost apartatuko lehenengo lerrotik laugarrenera, hau dio: «Gerra Zibilean Indar Armatueta, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Karabineroen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aitortzen dituen urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezarritakoaren babesean aitortutako pentsioek 2021ean izango duten zenbatekoa...» Baina hau esan behar du: «Gerra Zibilean Indar Armatueta, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Karabineroen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aitortzeko urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezarritakoaren babesean aitortutako pentsioek 2021ean izango duten zenbatekoa...»

66. orrialdean, 39. artikuluan, Bat apartatuaren bigarren paragrafoan, seigarren lerrotik aurrera, hau dio: «...2004, 2006, 2007 eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 61/2003, abenduaren 29ko 30/2005, abenduaren 28ko 42/2006 eta abenduaren 26ko 51/2007 legeen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrien Lau zenbakian ezarrita dago portzentaje hori, bai eta hamargarren xedapen gehigarrian ere.» Baina hau esan behar du: «...2004rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 61/2003 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren Lau apartatuan, 2006rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 30/2005 Legearen seigarren xedapen gehigarrian, eta, hurrenez hurren, 2007rako eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen eta abenduaren 26ko 51/2007 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian.»

72. orrialdean, 43. artikuluan, gutxieneko zenbatekoen koadroan, lehenengo zutabearen, «Zurztasun-prestazioa» dioen ataleko bigarren lerroan, hau dio: «Zenbait onuradun: onuradunen artean banatzeko 100.» Baina hau esan behar du: «Zenbait onuradun: onuradunen artean banatzeko.»

123. orrialdean, 79. artikuluan, Bat apartatuko 2. puntuaren lehenengo paragrafoan, hau dio: «Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, VL1 kategorian sailkatutako distantzia luzeko zerbitzuetan (irailaren 29ko 3/2015 Legearen 97. artikuluan 7. apartatuan zehaztutakoari jarraituta): 0,018692 euro.» Baina hau esan behar du: «Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, VL1 kategorian sailkatutako distantzia luzeko zerbitzuetan (irailaren 29ko 3/2015 Legearen 97. artikuluan 7. apartatuan zehaztutakoari jarraituta): 0,018692 euro.»

125. orrialdean, 80. artikuluan, 1.3 apartatuko koadroan, lehenengo zutabearen idazpuruan, honela dio: «B modalitatea» Baina hau esan behar du: «C modalitatea.»

163. orrialdean, 119. artikuluan, Hiru.5.b) apartatuan, azkenengo formularen, hau dio: «Lanean emandako egunen kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\text{Lanaldi murrizketa} = \% 7,36 \times \% \left(1 + \frac{\text{Lanaldiaren oinarria} - 42,90}{\text{Lanaldiaren oinarria}} \right) \times 2,52 \times \frac{\% 6,15}{\% 7,36} \gg,$$

Baina hau esan behar du: «Lanean emandako egunen kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\text{Lanaldi murrizketa} = \% 7,36 \times \% \left(1 + \frac{\text{Lanaldiaren oinarria} - 42,90}{\text{Lanaldiaren oinarria}} \times 2,52 \times \frac{\% 6,15}{\% 7,36} \right) \gg$$

165. orrialdean, 119. artikuluan, 5.a) apartatuko bosgarren lerrotik azkenengora, hau dio: «...Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, soldatak bermatzeko funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen Aginduak urtero ezarri beharreko...» Baina hau esan behar du: «...Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen aginduak urtero ezarri beharreko...».

172. orrialdean, 120 artikuluan, Hiru apartatuko 2. zenbakiaren lehenengo eta bigarren lerroetan, hau dio: «Estatuak egin beharreko ekarpena, 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan araututa dagoena,...» Baina hau esan behar du: «Estatuak egin beharreko ekarpena, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategineko 23. artikuluan araututa dagoena,...»

232. orrialdean, ehun eta hemeretzigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan, hau dio: «Garatu behar diren neurri zehatzak eta plana gauzatzeko epea —2022ra ere luzatu ahal izango da—, bai eta Extremadurako Enplegu Planerako aipatutako 2021eko ekarpena ere, Estatu Administrazio Orokorren, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Extremadurako Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.» Baina hau esan behar du: «Garatu behar diren neurri zehatzak eta plana gauzatzeko

epea —2022ra ere luzatu ahal izango da—, bai eta Extremadurako Enplegu Planerako aipatutako 2021eko ekarpena ere, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Extremadurako Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.»

237. orrialdean, ehun eta hogeitazargarren xedapen gehigarriko azken lerroan, hau dio: «...Lege honen 12. Lau artikuluan zehaztutako...» Baina hau esan behar du: «... Lege honen 12. Lau artikuluan zehaztutako...»

245. orrialdean, ehun eta berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian, 1. apartatuan, lehenengo paragrafoko azken bi lerroetan, hau dio: «...17.38.453B.756 aurrekontu-partidaren kargura.» Baina hau esan behar du: «...17.38.453B.755 aurrekontu-partidaren kargura.»

255 orrialdean, seigarren xedapen iragankorrean, *C.2 Trenak aparkatzeagatik, beste eragiketa batzuetarako* kanonaren tarifa unitarioari buruzko taulako lehenengo zutabean, hirugarren lerroan, hau dio: «Geltokietan trena garbitzea, 1-2 kategoriak.» Baina hau esan behar du: «Trena 1-2 kategoriako geltokian dagoela zamaianak egitea.»

263. orrialdean, hirugarren paragrafoko laugarren lerroan (apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko 33. artikuluan 2. apartatuaren idazketa berria), hau dio: «...Murrizketa hori ez da aplikatuko erretiro-pentsioa norberaren konturako jarduerarekin bateragarria denean...» Baina hau esan behar du: «...Murrizketa hori ez da aplikatuko jubilazio- edo erretiro-pentsioa norberaren konturako jarduerarekin bateragarria denean...»

268. orrialdean, azken xedapenetako hamaseigarrenean, Bi apartatuko lehenengo lerroan, hau dio: «Bi. 51. artikuluan 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:...» Baina hau esan behar du: «Bi. 51. artikuluan 2. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:...»

291. orrialdean, azken xedapenetako hogeita hamalagarrenean, Bi apartatuan, 86. artikuluan 1. apartatuari ematen zaion idazketan, hau dio: «...azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginean ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen badituzte.» Baina hau esan behar du: «...Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzeraren transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen badituzte.»

311. orrialdean, azken xedapenetako berrogeigarrenean, Hiru apartatuan, hau dio:

«Hiru. Aldatu egiten da 159. artikuluan 1. apartatuaren b) letra. Honela idatzita geratzen da:

«159. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatua.*

[...]

a) Balio zenbatetsia gutxienez 2.000.000 eurokoa izatea obra-kontratuen kasuan, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia lege honen 21.1 artikuluan a) letran eta 22.1 artikuluan a) letran ezarritako kopuruen edo horien eguneratzeen berdina edo txikiagoa izatea.»

Baina hau esan behar du:

«Hiru. Aldatu egiten da 159. artikuluan 1. apartatuaren a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«159. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatua.*

[...]

a) Balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa edo txikiagoa izatea obra-kontratuen kasuan, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia lege honen 21.1 artikuluan a) letran eta 22.1 artikuluan a) letran ezarritako kopuruak edo horien eguneratzeak baino txikiagoa izatea.»

331. orrialdean, III. eranskinaren taulan, azken-hirugarren lerroan, hau dio: «Kreditu Ofizialeko Institutua (6) 5.900.000:00» Baina hau esan behar du: «Kreditu Ofizialeko Institutua (6) 5.900.000,00»

432. orrialdean, TARRAGONAko portu-agintaritza izeneko taulan, «FRUTAK ETA BARAZKIAK» hamahirugarren lerroan, «BERARIAZKO APLIKAZIO-BALDINTZAK» azken zutabean hau dio: «a) eta c) berariazko baldintzak aplikatzen dira...» Baina hau esan behar du: «a) eta d) berariazko baldintzak aplikatzen dira.»